

# Arrasate

P R E S S


1995eko  
uztailak 7  
283. zenb.


**KULTURA**  
**Angel Alonso,**  
**zeramista**

**KIROLAK**  
**III. mailako**  
**Mondran**  
**aldaketak**

**Xabier**  
**Zubizarreta**

Hirugarren agintaldiaren aurrean





# Arrasateko OSASUN GIDA

## **ALBAITARIAK**

ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ..... ☎ 79 15 31

## **ALERGIA ETA ASMA**

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43..... ☎ 79 81 00 / 79 81 11

## **DENTISTAK**

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ..... ☎ 79 95 60  
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎ 79 72 23  
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎ 79 71 90  
GIPUZKOA ESPEZIALTATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎ 79 73 88  
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎ 79 69 45  
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ..... ☎ 77 12 63

## **ENTZUMENA, SUDURRA, EZTARRIA**

Zulueta eta Navarro Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ..... ☎ 79 20 18

## **FISIOTERAPEUTAK**

ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis .... ☎ 77 03 96

## **GINEKOLOGOAK**

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ..... ☎ 79 20 18

## **LOGOPEDIA**

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk..... ☎ 79 79 46  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **MASAJARIAK**

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ..... ☎ 77 06 22

## **MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK**

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 79 44 22

## **OPTIKA**

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ..... ☎ 79 25 98  
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 79 29 95

## **PSIKOLOGOAK**

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ..... ☎ 79 88 16  
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ..... ☎ 79 48 77

## **REUMATOLOGIA -BIZKARREZUR TERAPIA**

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎ 77 00 40

# Oporrak


**S**an Juanak joan dira. Uda berriz, etorri. Joan-etorrian pasatzen zaigu bizitza, konturatzeke. Hau komedia, hau!

San Juanak pasa eta hurrengo egunean, gaztedia batez ere, baina ez bakarrik, gorputzari eutsi ezinik, galbana galantarekin, "errekuperazioa": ohea, butaka, eztari argitze, eta, behar bada, mendira bueltatxo bat "esnatzeko" eta "desintoxikatzeko". Festak motxak direnez, intentsiboki bizitzen dira; ez da ba harrizkekoa horrela bukatzea. Baina, ez ote zaigu antzerako zerbaite gertatzen oporrekin?

Onuragarri zaio lanean aritu den ari atsedena, eta beharrezko. Baina, beste gai askotan bezala, erabilera traketsak emaitzak alda ditzake eta kalteko bihurtu.

Gaur egun, berezko beharrak baino, publizitateak eta giroak inposatzen dizkiguten beharrak sentitzen eta "gura" ditugu. Zoriona eskaintzen digute, eta zorionsu izateko eginak gaudenez, errazegi helden diogu amuari. Nork lortzen du bere helburua, arraiak edo arrantzaleak?

Gaurko aldizkariari begirada bat eman diot eta... bidaiak gora, bidaiak behera, hamar-hamabost



egunetan mundua eta zoriona, edo... estresa? kotxe ezin hobeak neska/mutil "sexi" eta guzti, "zerua", edo... hamar urteko plazoen uztarria? Eta abar, eta abar.

Hau da dena ikutu, ikusi, probatu, eduki, experimentatu beharra! Hau, menpekotasuna! Hau, propagandaren eta besteen aurrean haundiki azaltzearen tirania!

Ez da hainbesterako -esango didazu-. Ados; baina, baina... Zoriona ez dago edukitzean, izatean baizik; ez dago menpekotasunean, askatasunean baizik; ez dago itxurakerian, egian eta benetako-tasunean baizik.

Dena dela, hara hemen eskaintzen dizudan galdera: Zer nolako oporrak egin nahi dituzu: "komertzialak" edo giza-koiak?

Eta proposatzen dizudanak: lasaitasuna, lagun eta familiartea, eguzkia eta itsasoa, patxara, mendia eta natura, barne bilaketa, kontenplazioa eta gauza txikien gozamina, pakea eta otoitza, irakurketa eta deporteia, isiltasun uneak eta zeure

buruaren jabetasuna, Jainkoa.

"SAGARRAGA"  
JOSE MARI  
ASTIGARRAGA




Memesa  
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Laguntzaileak:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).




ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Goio Arana

# I R T A B E R N A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoj, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

### Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala  
(Psikomotrizitatea eta  
hizkuntz bereziera)  
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola  
arazoak, enuresia  
(Ohe bustitzea),  
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10  
Tfnoa: 79 48 77  
ARRASATE

•••••

## Besterik ez bada errespetoa!

Astean pare bat aldiz bizikleta hartu eta errepidera irteteko ausardia hartzen dut. Ausardia esan dut, horixe behar da eta gaur egun errepideak dauden moduan egonda. Txiki geratu zaizkigu, ez dago hori ukatzerik, bestela ez litzateke hainbeste errepide berri egiteko planik egongo, baina hala ere oraindik erabiltzeko modukoak dira, baldin eta jendeak (autoak zein bizikletak) errespetuz eta gizalegez jokatzeko badu.

Esango dizuet, irteten naizen guztietan kaskoa jantzi eta errepideko eskumakaldera makurtzen naiz, semafororik badago geratu eta itxaron egiten dut, stopak errespetatu, bidegurutzeren bat hartu behar badut besoaz ondo seinalatzen saiatzen naiz, eta hori nahikoa izan beharko litzateke etxetik lasai irten eta izerdia bota ondoren lasaitasunez bueltatzeko. Baina ez zait halakorik gertatzen: nahiz eta errepideko eskumakalderetik joan ez naiz eroso joaten, auto askok, artzenik dagoen edo ez begiratu barik, aurretik beste norbait datorren edo ez ikusi barik, aurretik debekatua egon edo ez, kurba izan edo ez kontuan hartu barik... edozein tokitan aurreratzen dutelako, horrek bi gurpildunoi dakarkigun arriskuaz.

Nik trafiko arautegia errespetatzen badut, zergatik ibili behar dut arriskua-

ren erdian? Errespetu nazarren gutxienez!

Behar bada auto-gidariaren bat egon daiteke txirritulariaren bat ikusi eta nola jokatu ez dakiena, erabat urduri jartzen dena. Horrendako pare bat aholku: ikusiaz bat, urrun badago behintzat, bozina jo suabe suabe, eta ez aurreratu arriskurik ez dagoela ikusi arte. Hobe da segundu batzuk galtzea, beste norbaiten bizia segundu batean arriskuan jartzea baino.

**E. PESCADOR**

•••••

## Egunkari Eguneko laguntzaileei

Zein egun ederra pasatzeko aukera izan genuen denok Egunkari egunean, musu truke ehundaka kolaboratzailek esku bat bota zenutenari esker.

Asko izan zarete, txoznak montatzen, zerbitzen, garbitzen edo hamaika lanetan zuen borondatez jardun duzenok eta horregatik, AEDri emaitzengatik eta lanarengatik zorionak eta eskerrak ematea tokatzen zaio.

Bestalde, Egunkariak ere esker oneko afaria egingo du uztailearen 22an Zaldibar pilotalekuan kolaboratzen jardun dugun guztiok. Afariko prezioa 500 pta., eta izenematea AEDn uztailearen 15a baino lehen. Animatu!

**AED**

## Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatze ailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

•••••

## URRATS

### AHOLKULARITZA

•••••

GARIBAL, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**MILARIOU**  
Taberna-jatetxea  
Kafetegia

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77 01 69

# San Ferminetara joateko asmorik baduzu?




**Gema Iñiguez**  
Zuzenbide ikaslea  
(25 urte)

Aurten ez, behin bakarrik joan naiz eta ondo pasatu nuen arren jende gehiegi egoten dela uste dut. Apur bat agobiantea izan daiteke.



**Jose Antonio Sageras**  
Pintorea  
(26 urte)

Oraindik ez dut pentsatu baina seguruenaz asteburuan joango naiz, beste urte batzutan ere joan izan naiz eta.




**Santi Gonzalez**  
Lorazaina  
(31 urte)

Beharbada joango naiz, iaz ere egon nintzen eta gustatu zitzaidan. Jende gehiegi egoten dela egia da, baina joan naizenean ederto pasadut.



**Maitane Zubiaga**  
Ikaslea  
(15 urte)

Ez noa eta ez naiz sekula egon. Hala ere, oso jai erakargarriak iruditzen zaizkit. Hemendik urte batzuk barru joatea espero dut.



**Donato Lizondo**  
Jubilatua  
(89 urte)

Gaztetan askotan joan izan naiz. Gasteiztik autobusez joaten ginen eta primeran pasatzen genuen, baina aurten ez dut joateko asmorik. Urte asko ditut.



**Miren Mondragon**  
Dendaria  
(33 urte)

Sekula ez naiz egon eta aurten ere ez naiz joango. Gainera ez zaizkit gustatzen jai horiek, jende larregi egoten da eta sekula ez didate erakarri.



**Germana Larrea**  
Jubilatua  
(78 urte)

Ez naiz sekula joan eta horretxek pena ematen dit. San Ferminetan, dena dela, goizero ikusten dut entzierroa.



**Antonio Bujero**  
Jubilatua  
(70 urte)

Ez zaizkit San Ferminak gustatzen eta ez naiz sekula egon. Jende gehiegi eta zaratatarregi nire gustorako.

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82

## Ikerne Heriz Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea  
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56  
Rosa Mari ileapaindegian

Abuztuko 4ra arte  
zabalik.  
Goizez 9etatik 1ak arte.

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Bitile iraunkorrak

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit .....79 53 00  
 Iguatorialoia .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 (Txanda hartzeko) .....77 03 46  
 77 07 21  
 Oiñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziazak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oiñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....79 87 77  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 7**  
 Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.  
 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

**Larunbata 8**  
 Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.  
 10ak arte: Español. Iturriotz.

**Igandea 9**  
 Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara.  
 10ka arte: Corcuera. Musakola.

**Astelehena 10**  
 Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara.  
 10ak arte: Irizar. Erguín.

**Asteartea 11**  
 Egunez eta gauzez: Puy. Bergara.  
 10ka arte: Amezuza. Santamaina.

**Asteazkena 12**  
 Egunez eta gauzez: Cuellar. Bergara.  
 10ka arte: Ruíz. Maala.

**Osteguna 13**  
 Egunez eta gauzez: Estella. Bergara.  
 10ak arte: Morales. San Andrés.

**7 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Un asunto de amor" 7etan eta 10etan.

• **NARKOTRAFIKOA ETA DROGAREN ERABILERA OKERRAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN EKINTZAK**

6.30etan Arrasateko plazan bilduko dira eta giza-katea ekingo da. 7.15etan bertso-larien saioa. 7.35etan Alkateak manifesto bat irakurriko du. 7.45etan Eskoriatzako dantza taldearen emanaldia. 8.15etan Goikobaluren emanaldia eta 8.45etan Dunbaka perkutsio taldearen emanaldia. Antolatzaileak: Gizakia Helburu, Askagintza, HIES Ekimena, Lizarra elkarte eta Deba Garaiko Udalak.

• **DANTZA EMANALDIA**  
 Ukraniako "Kalyna" dantza taldearen dantza emanaldia Monterronen gaueko 10.30etan. Sarrera: 500 pta. (Eguraldi txarra eginez gero, Amaia Antzokian).

**8 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Rob Roy" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**9 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Rob Roy" 5etan, 7.30etan eta 10etan.



**"KALYNA" UKRANIAKO DANTZA TALDEA MONTERRONEN**

Uztailaren 7an Ukraniako Kalyna dantza taldearen emanaldia Monterronen gaueko 10.30etan. Ikuskizuna hainbat zatik osatu dute, mota askotako musika, kantu polifoniko folklorikoen konposizioak eta hainbat dantza eder besteak beste.



**BESAIDEREN MENDI IRTEERA**

Uztailaren 16an Besaidek Kanpezu, Yoar eta Kodesera mendi irteera antolatu du. Interesatuak uztailaren 11, 12 eta 13an eman dezakezue izena arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara Besaideren Egoitzan.

**EGUNKARIA EGUNEKO KOLABORATZAILEEN AFARIA**

Uztailaren 22an Egunkari egunean kolaboratzen ibili diren guztiek afaria izango dute Zaldibar pilotalekuan. Prezioa: 500 pta., izenematea AEDn uztailaren 15a baino lehen.

**10 ASTELEHENA**

• ZINEA

“Rob Roy” 7etan eta 9.30etan.

**11 ASTEARTEA**

• ZINEA

“Rob Roy” 7etan eta 9.30etan.

**12 ASTEAZKENA**

**13 OSTEGUNA**

• ZINEA


“El sabor de la muerte” 7etan eta 9.30etan.

**ZINE KLUBA**

“Cuatro bodas y un funeral” Monterronen gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta. (Gazte-txartelarekin 250 pta.). Egu-raldi txarra eginez gero, Amaia Antzokian.

• **BILERA BEREZIA INSTITUTOAN**

Datorren ikasterterako hirugarren mailarako matrikula egin duten ikasle eta beraien gurasoentzat bilera Institutuko Areto Nagusian. Ordu-tegia, euskaraz arratsaldeko 6etan eta gastelera 7etan.



**ARGAZKI ERAKUSKETA**

Uztailaren 16ra arte Kirol Argazkigintzako Nazioarteko XIV. lehiaketaren argazki erakusketa Monterronen. Ordu-tegia: 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**PORTASOLEKO JAIK**

Uztailaren 14tik 16ra bitartean Portasoleko jaiak ospatuko dira Aretxabaletan. Ekintza ugari antolatuta da asteburu horretarako. Ostiralean Egan taldearen dantzaldia izango da. Larunbatean beste gauza batzuen artean, karaokea, sokamuturra, herri afaria eta domekan ere izango da ekintzarik.

**PINTURA ERAKUSKETA**

Uztailaren 16ra arte Monterrongo pintura ikastaroaren erakusketa Harresi aretoan. Ordu-tegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**KANPOKO LOREN APAINKETA LEHIAKETA**

Ibai-arterek kanpoko loren apainketa lehiaketa antolatuta du. Lehiaketan erdialdean bizi diren arrasatearrek parte hartu ahal izango dute baina ez da beharrezkoa izenik ematea. Irabazlea nor den uztailaren 12an jakingo da. Sariak: lehenak 35.000 pta. bigarrenak 25.000 pta. hirugarrenak 10.000 pta. eta laugarren eta bosgarrenak 5.000 pta.



**“HERMINIO Y MIGUELITO” ANTZEZLANA MONTERRONEN**

Uztailaren 14an Sobradun antzerki taldearen “Herminio y Miguelito” antzezlanaren antzezlan Monterron parkean gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. (Gazte-txartelarekin 500 pta.).

“Ziur aski gakoa ez dago poliziarengan, politika-riengan baizik. Arrasateko horma batek dioenez: “Mundua ez litzateke hain zikina, guztiok ohean elkarrekin bagina”. Ez dakit nola interpretatu. Hala ere, poztekoa litzateke uda honetan, iragarri zaigun bezala, EAJ eta EA elkarrekin oheratzea; eta gero pozik ikusiko nituzke bi Xabier - Arzalluz eta Alegria- besotik helduta, elkarri musuka (zentzu metaforikoan noski!); eta gero, elkarriketa zabalduz joatea: etxeko besteengana lehenengo, Pancorvotik behera gero. Ziur aski, bihar mezu hau eramango du Elkarrik Madrilerá”.

**Iñaki Mendiguren**, ekainak 30.

**Egunkaria**

“(…) Ez dut ahaztu Ipar Euskal Herria, baina orrialde honen mugetatik kanpo litzateke konparaketen bitartez harenganako hurbiltzetaz teorizatzea. Dena den, eta aholkua guztientzat baliogarria izanik, euskal udal guztiek gero eta arreta handiagoaz begiratu beharko diote europar erakunde errealitateari, hortik etor baitaiteke etorkizun hurbileko partaidetza”.

**J.M. Velez de Mendizabal**, ekainak 18.

**ARGIA**

“Kirolari dagokionez, bestalde, emakumeek gero eta partehartze handiagoa dute, baina komunikabideetan ez zaie garrantzi bera ematen gizonei eta emakumei. Horrek hainbat ondorio dakartza; batetik, kirola egiten duen emakumea arrarotzat jotzen da, ihardun hori oraindik erabat ohikoa ez delako; eta, bestetik, ez dago gainerantzeko emakumeentzat inolako erreferentziarik, berriak ez baitira zabaltzen, eta, horren ondorioz, zailagoa da emakumeek kiroletan parte hartzea”.

**Esti Loiti**, ekaina

**EMAKUNDE**

## Nola joan da abizenak euskal grafiara aldatzeko kanpaina?

**O**rokorrean ondo joan dela esan daiteke. Egia esan jende gehiago hurbilduko zela uste genuen hasieran, baina kanpainak zenbat iraun duen kontuan hartuta pozik egoteko moduan gaude. Kanpainak hilabete eta erdi iraun du eta gutxi gorabehera 250 lagunek jarri dute abizena euskal grafian. Kanpaina, inguruko beste herri batzuetan egin denean denbora tarte luzeagoan egin izan da, eta antzerako erantzuna jaso du. Jende gehien hasieran eta bukaeran hurbildu da. Kanpaina hasi zenean jende asko etorri zen eta bukaeran ere izugarri. Nahiz eta kanpaina bukatuta egon gainera, oraindik ere jendea AEDra hurbiltzen ari da.



**Maider Balanzategi**  
Kanpainaren arduraduna

Hurbildu den jendeari buruz esan batez ere gazteak eta ezkongabeak animatu direla. Agian, helduagoei abizena aldatzea zailagoa egiten zaielako gertatu da hori. Gehien aldatu diren abizen batzuk, berriz, honako hauek izan dira: Agirre, Arregi, Etxebarria, Azkarate, Otadui...

Nola ez, anekdotarik ere ez da falta izan. Batzuk abizena euskarara itzuli nahi zuten, beste batzuk bi abizenez osaturiko abizena bakarria izatea eskatu dute, kasuren baten, atzerrian pape-rak eskatu behar izan ditugu.

Bukatzeko eskerrak eman Euskaltzaindiari eta Arrasateko Epaitegiari, biekin izandako harremanak onak izan dira eta.

Zubizaneta



**GALERIA 44**

**Denda berezia**

Zerkaosteta, 8 Tfnoa: 79 90 50 • ARRASATE



**ARRASTRO**  
**Birziklaia**



Erabilitako objetuen berreskurapena: altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinatikoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK**  
**PREZIO ONENEAN!!**

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresnarik badaukazu dei egin **78 32 88** telefonora eta geuk batuko ditugu.

**Gure ordutegia hurrengo da:**

Astehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara.

Larunbatetan, goizeko 11etatik 2etara.

Kalezarra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88



**Iban Learretari omenaldia**


AED, Murrukixo eta Besaidek antolatuta, domekan omenaldia egin zioten orain dela urtebete hil zen Iban Learretari. Ibanen lagunek eta familiarartekoek parte hartu zuten omenaldian. Goizean guztiak batera Udalaizera igo zuten eta gero, Udalara jeitsi ziren mokadutxo bat egitera. Iban eskalatzan ari zela hil zen.

**Autopistaren alternatibak aztertu**

Inguruko herrietako zenbait lagun Aitzorrotzera joan zen zapatuan, Maltzaga-Urbina autopistaren inguruan dauden alternatibak aztertzera. Ibilaldian parte hartu zutenen iritziz, Eusko Jaurlaritzaren autopista egiteko alternatibak aztertzen ari da eta laster, proiektua aurkeztuko du. Haran-Bizia taldeak antolatu zuen ekintza

**Lander Etxabe atxilotu**

Joan den asteazkenean, Lander Etxabe 24 urteko intsumiso arrasatearra atxilotu zuen Ertzantzak. Intsumisoa izateagatik egin behar zioten epaiketara azaldu ez zelako atxilotu eta eraman zuten Martutenera. Hurrengo egunean epaitu zuten Donostian eta ondoren aske utzi zuten. Landerrek "Kanpanzar"



**'Primitiva' eta ONCE Arrasatera**

133.697.805 pta. irabazi zituen arrasatear batek joan den osteguneko "Loteria Primitiva"n. Sei zenbaki asmatu zituen irabazleak San Andreseko Garai administrazioan bete zuen boletoa. Susmoak badauden arren, ez dago ziur zein izan den irabazlea, inork ez du eta dirutza irabazi duenik aitortu.

Asteazkenean, berriz, Once saria heldu zen San Andreseko Lizarra tabernara. Tabernan saldu zen 55340 zenbakiak 175 milioi ekarri zituen. Zenbaki horretako 70 boleto saldu zirenez irabazle asko izan ziren.

tabernan egiten du lan eta bertan zegoela atxilotu zuten.

hartzeko. Gehienak autobuzez joan ziren baina izan zen bere aldetik autoz joan zenik ere.

**Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna**

Ekainaren 28an Gay eta Lesbianen Nazioarteko Eguna ospatu zen eta beraien eskubideen aldeko manifestazioa egin zen. Ekintza Egizanek eta Emakumeen Asanbladak antolatu zuten.

**26 arrasatear topaketa isilean**

Arrasateko 26 lagun joan ziren zapatuan Madrilera, Elkarrik antolatutako Topaketa isilean parte

**Lantegi Eskolaren 2. proiektua amaitu**

Zubillagako eskola zaharra konpontzea izan da Lantegi Eskolaren bigarren proiektuan parte hartu duten ikasleen azken lana. Joan den ostiralean, Zubillagako eraikin berriua inauguratu zen Eskola zaharraren lehen solairuko gelak ekintza sozialetarako izango dira, eta bigarren solairuan egin diren bi etxebizitzak alokatu egingo dira. Uztailaren 17an Lantegi

Eskolaren hirugarren proiektua hasiko da, eta Zaldibar ikastetxearen ondoan enpresa ekintzarako zentrua egokituko dute, enpresa bat sortu nahi dutenei txoko bat emateko.

**JAIOZAK**

- Andoni Varela Lazpita. Ekainaren 5ean.
- Maitane Dieguez Etxabe. 17an.
- Ding Chen Yin. 11n.
- Joseba Arregi Goñi. 20an.
- Ainhoa Sanchez Agirre. 20an.
- Markel Bouzon Otxoa. 19an.
- Laura Agilar Alonso. 14an.
- Julen Agiriano Lizundia. 22an.
- Jokin Alonso Perez. 25ean.
- Danel Hernandez Davila. 25ean.
- Kepa Zuazubiskar Gonzalez. 26an.
- Adrian De la Hoz Menaño. 28an.

**EZKONTZAK**

- Juan Murillo Barquero eta Maria Luisa Balanzategi Larreina. Ekainaren 23an. Elizatik.
- Jon Iñaki Luzaika Isasti eta Maria Aranzazu Garai Iri-golien. 24an. Elizatik.

**HILDAKOAK**

- Rufina Yarza Sarasola. Ekainaren 21ean. 81 urte.
- Leonila Gudiña Moya. 21ean. 78 urte.
- Ruben Conde Sanchez. 22an. 8 urte.
- Emilianita Ibabe Txintxurreta. 24an. 89 urte.

**HIES EKIMENA**  
**Astelehen, astearte eta ostiral**  
**5etatik 8etara.**  
**Tfnoa: 79 26 99**

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

**Lore**  
**Lurrindegia**

Olarte kalea, 10 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 52 50



\* Jose Luis Alonso

## Gizakia helburu: mitotik errealitatera

**B**adira dagoeneko zortzi urte drogen eraginez kaltetutako pertsonen ondoan lanean gabiltzala; hau da, gazteak eta euren familiak. Seriotasunak, profesionaltasunak, gure lanaren oinarrizko izaera hezitzailea izateak eta drogarik ez erabiltzeak, 145 gaztek heldutasuna eta baloreen heziketari begiratzen dion programa bukatu izana ahalbiderratu du. Baina esperantzaz betetzen gaituzten datu hauekin batera mito bat sortu da, Gizakia Helburu proiektuaren irudi itxia eta estatikoa.

Irudi itxia, Gizakia Helburu heroina kontsumitzaileentzat eta baloreak galdu dituztenentzat baliogarri dela azpimarratzen delako. Bakarrik familiaren laguntza handia izanez gero integratu daitekeela zabaltzen delako. Itxia, esaten delako VIHaZ jota daudenak ez dutelako esperantza eta bizi-gogoa sortzen duen prozesua garatu behar, ezer exijitu ezin zaien pertsonak dirrela esaten delako. Irudi estatikoa drogaren ikuspuntu finkoa onartzen duelako, kontsumoan eta kontsumitzeko eran gertatzen den eboluzioa ez delako kontuan hartzen.

Irudi horren aurrean, drogaren munduarekin zerikusia duten aldaketak aurkeztu nahi ditugu, eta ondorioz, Gizakia Helburu programaren eskaintza egokitua aurkeztu.

Pertsona, familia eta gizarte mailan degradazio handia izan eta osasun eta lege-arazoak dituen toxikomanoa eta batez ere heroinomanoaren irudiaren aurrean, familia eta lan-arloan finkotasuna duten pertsonak aurkitzen ditugu, heroinarekiko dependentziarik ez duten polikontsumitzaileak, gizartean integratuak, osasun edo lege arazoak gabekoak.

Heroinaren kontsumoak sortzen duen gizarte alarmatik, beste droga batzuren kontsumoaren aurrean sortzen den lasaitasunera pasatu gara (extasi-a, speed-a, kokaina, alkohola)..

Familien errealitateak sor-

.....

*“Heroinomanoaren irudiaren aurrean, familia eta lan arloan finkotasuna duten pertsonak aurkitzen ditugu”*

tu dituen zenbait egoera berrik ezinezko bihurtzen du beraien inplikazioa edo ez diete uzten drogaren errealitatearen garrantziaz jabetzerik.

Aldaketa hauen aurrean gure programa terapeutiko-hezitzailearen egitura eboluzio bat eman da. Ohiko hiru etapetatik: Harrera, Komunitatea eta Erreinserzioa, fase desberdinetan eskaintzen ditugun zerbitzuen dibertsifikazioa pasatu gara. Harrera zentruak ohiko toxikomanoari zuzendutako lana betetzen du; aldi berean lan arloan finkotasuna eta familia eta gizartearen laguntza dutenentzat gaueko programa dauka.

Komunitate terapeutikoa, egonaldiko programarekin batera eguneko programa bat garatzen du, prozesu banakakoagoa behar dutenei komunitateko baliabideen erabilera ahalbidertzeko.

Erreinserzioak oraindik hor ditu bere helburuak. Gizarte erreintegrazioa ahalbidetzeko oinarrizko fasea da, eta gero eta gehiago oinarritzen da familia eta gizarte inguruan. Hor dugu, laguntza etxebizitza bat, borondatezko jendeak eramanda, programaren edozein unetan egitura bat behar dutenei laguntza eskaintzeko, programa egiteko aukera emanez laguntzarik ez dutenei.

Hor dago ere Elkarrekin taldea, seropositiboez osatuta, gaisotasunaren aurrean talde-laguntza prozesu bat egin nahi duena. Talde honek kaltetuen eta familien prozesuei ematen die laguntza.

Egunero zerbitzu berriak egituratu eta sortzen ari gara: garrantzitsua ez da egitura, pertsona baizik. Gizakia Helburuko oinarririk: elkartasuna eta autolaguntza, gizarte-arekiko dugun erronka eta konpromezua drogazaleei eta drogazaletasunak sortutako ondorioei erantzutea da. Gure errealitatearen parte da hau.

\* **ESTATUKO GIZAKI HELBURUKO PRESIDENTEA**

## USTEAK USTE

JUANITO, JUANITO...

Egunkariak Arrasateko jaietako eskaintako ale berezian, behin baino gehiagotan entzun dizkizudanak irakurri ditut. Eta behin eta berriz diotsut, polit hori, nik ez dudala inongo konplexurik nire Arrasateko euskalkia erabili eta lantzen, hemengo guraso-enganetik jaso genuen euskara jatorraren ildotik zenbat “trozo” (hala esaten duzue Berastegin, nire senarra, ondo dakizunenez, hangoa baita) aztertzerakoan batez ere. Sobera dakigu “hemen-go” lehengoek sintasi eta aditz aldetik “behe” aldekoek baino forma aberatsagoak erabili ohi dituztela. Baina “batzerakoan” Gipuzkera gainetik jarri izana behin baino gehiagotan leporatu zaie Euskaltzainei, orain urte batzuk hasita bizkaieraren aberastasuna berreskuratzen hasita badira ere, gure Seber Altuberen hainbat aholku gaurkotuz.

Euskarak kalitatea aho askotan gal dezakela begibistan dago, Firin Faran ikusi eta “behe”aldeko zenbait herriko plazetan entzun besterik ez dago. Zoritxarrez hemen ere bai, baina ez arrasatearrok inongo konplexurik daukagulako (beste arrazoi sakon eta tristeek dute errua), zuen “garbitasunaren” izenean gure “bentania zerrauta itxi”ri barre egin badiozue ere. Hala ta be, hemengo formak ikasten ahalegin serioa egin duzula ezin ukatu, eta horrek zure alde asko esan gura du.


Gure “zure uesteko” konplexua aidentatuz ez goaz inora, edonongo forma jatorrak berreskuratu eta osorik denon artean kalitatezko hizkera moduak aurrera atereaz bai. Dena den, besarkada bat, eta segi hain umoretsu, Juanito.

NEKANE SAN MIGUEL

# Hamabosta baino lehen aurkez dezakete zentsura mozioa

PSE-EEko J. Egigurenek, EAKo J.J. Irizarrek eta EAJko J. Egibarrek ekainaren 22an sinatutako idatzian jasotzen denez, uztailaren lehen hamabostaldian aurkeztu beharko da zentsura mozioa Arrasaten. Herriko EAK, PSE-EEK eta EAJk gainera uko egin diotenez HBrekin elkarrizketak izateari, hirukoa osatzen duten alderdiek laster zentsura mozioa aurkeztuko dutela pentsa daiteke.

Hirukoa aurrera irteten bada EAJko J.M. Loitik izango da alkatea, horregatik egunotan EAJ gainontzeko alderdiekin harremanetan ari da. Loitiren esanetan "ez dago ezer finkaturik eta gauzak ez dira samurrak baina datoren asterako erabakiren bat hartu nahi dugu". EAKo I. Gallastegiren berbetan, "hirukoa osatzeko eta HBrekin elkarrizketarik ez hasteko agindua jaso genuen exekutibatik. Beraz, hirukoaren alde egingo dugu baina EAJren ardura da hori abian jar-



Zentsura mozioa aurrera irteten bada J. M. Loiti izengo da alkatea.

zea". PSE-EE ere, hirukoa lehenbailehen ezartzearen alde azaldu da.

Legeak agintzen duenez, uztailaren 17rako Udala anto-

latzeko pleno berezia egin beharko denez, badirudi HBk Ezker Batuarekin osatu beharko duela gobernua. EBko J. Ugaldere esanetan "oraindik

ez dugu ezer erabaki baina baliteke HBrekin gobernuan sartzea. Premiazkoena Udala funtzionamenduan jartzea da". Behin pleno hori egin da, zentsura mozioak plenera eramateko aukera izango da.

## Udalaren banaketa

Maiatzaren 29an emandako prentsaurrekoan, hauteskundeak baino lehen hirukoa osatzen duten alderdiek hartutako akordioaren berri eman zuen PSE-EEK. Akordioaren arabera, gobernu batzordean alderdi bakoitzeko bi zinegotzik parte hartuko lukete. EAJk kultura eta kirol batzordea, hazienda eta personal batzordea eta gaztedia eta emakumearena izango lituzke PSE-EEK Hirigintza eta Ingurugiroa, Gizarte ekin-tzetako batzordea eta Auzo-etakoa. EAK, Zerbitzu batzordea, Hezkuntza batzordea eta Euskara batzordea. Prentsaurrekoan zinegotzi batzuk liberatzearen aukeraz ere hitz egingo zen.

● **Txitxinpe** ●  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**TXOKO  
TABERNA**  
Gure berezitasunak pintxo eta  
mokau gozoak

**IBARRA  
Garajea S.L.**



Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**ITSASKI**  
ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**Bazar**  
TOKI ON

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1  
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

# Txatxilipurdi, AED eta Udalaren eskutik udalekuz blai dator aurtengo uztaila

Joan den astelehenean, Txatxilipurdik antolatutako udako udalekuei eman zitzaizen hasiera. Zortzigarren urtez udaleku irekiak antolatu dira eta lehen hamabostaldirako 270 gaztek eman du izena. Babylekuak, berriz, orain dela hiru urte hasi ziren antolatzen eta lehen hamabostaldian 100 umek parte hartuko du. Aukera horietaz gain, aurten bada nobedaderik. Garaioko aterpetxea konpondu eta udaleku itxiak antolatu ditu Txatxilipurdik. 10 eta 14 urte bitarteko 35 gaztek bertan pasako dituzte hamar egun eta berdina egingo dute bigarren hamabostaldirako izena eman dutenak ere. 45 begirale arduratuko dira lehen hamabostaldirako udalekuak aurrera eramate-



Ondo pasatzeko ekintza desberdinak egiten dira udalekuetan.

az. Goizane Larrañaga, udalekuetako arduradunaren berbetan, "kopuruari dagokionez asko ez, baina zertxobait igo egin da partaidetza".

AEDk, gainera, hiru auzolandegi antolatu ditu uztaile-

rako. Auzolandegiak uztailearen erdialdean hasiko dira eta oraingoan, 18 lagunek eman dute izena. Horietatik %80a neskak dira eta gehienak kanpotarrak.

Udalak Eusko Jaurlari-

tzarekin elkarlanean bestalde, auzolandegiak antolatu ditu Udalan. Auzolandegi hauetan 18 eta 25 urte bitarteko 40 gaztek parte hartuko dute bi txandatan banatuta. Helburua, Udalan dauden elurzulo bat eta lau karobi berreskuratzea izango da. Auzolandegietan egiten den legez, goizez lan egingo dute eta arratsaldean, aisialdiko ekintzak izango dituzte. Elurzuloa orain dela 500 urte inguru erabiltzen zen, elurra izotz bihurtu eta gordetzeko. Gero handik izotza atera eta saldu egiten zen. Karobiak, berriz, karea ateratzeko erabiltzen ziren. Karobiak eta elurzuloa berreskuratzen direnean, informazio panelak jarriko dira horien berri emateko.

## EUSKAL ENPRESA BAT MUNDUAN AITZINDARI

**Azbe B.Zubiz, S.A.k segurtasun handiko sarraila elektronikoa berria garatu du Ikerlan-ekin elkarlanean.**

**Bere 75. urteurrena ospatzen duen urte berean, Gipuzkoako Aretxabaletan dagoen Azbe B-Zubia, S.A. enpresak, sarrailgintzara emanak, goi-mailako teknologia mikroelektronikoa erabiliz, produktu berri bat egin du; ohizko edozein sarrailari jar dakiok, zilindroan monobloc sistema baldin badu; eta horretarako Ikerlan teknologi ikertegiaren laguntza eragin-korra izan du.**

**Erronkarik handiena sistema mekatroniko bat garatu eta egitea izan da: mundu mailan orijinala; kontrolerako, zilindroaren baitan segurtasuneko elektronika sartu da, neurria egindako zirkuitu integratuan oinarritua; eta hori Azbe B-Zubia, S.A.k egin du Ikerlanekin elkarlanean.**

**Laster merkaturatuko den produktu berri honek, segurtasun handiko sistemaz gain, badu zerbait berria ere: giltzen pertsonalizazioa, eta horrela erabat kopiazinak dira beren sistema mekatronikoari esker; sistema honek - Azbe B-Zubia, S.A.k patentatua - inbertsio-ahalegin handia eskatu dio enpresari, proiektuak iraun duen hiru urteetan zehar.**


**Azbe B-Zubia, S.A. enpresa berritzaile baten adibide ona da. I+Geko lantalde propioa eta-ona izateaz gain, badaki bere ahalmen eta gaitasun teknologikoak osatzen kanpo-baliabideak kontratatuz, eta ahalmen eta gaitasun teknologikoak osatzen kanpo-baliabideak kontratatuz, eta hauek balio erantsia ematen diete haren produktuei, elkarlan estuan lan eginez.**

## IZEN PROPIOAK




**Agustin Azkoaga** eta **M<sup>a</sup> Dolores Villar** arrasatearrek urrezko eztaiak bete dituzte eta elkarrekin daramatzaten 50 urteak ospatzeko Leku Santuetara joan dira. Sinesteko zaila dirudien arren, **Yaser Arafatekin** egon

ziren Jericon, eta argazkia atera zuten. Izkinan txapelaz dagoen gizona Agustin da eta Arafaten inguruan dauden beste guztiak Gipuzkoarrak dira. Argazkia M<sup>a</sup> Doloresek atera zuen.



**Corazón de Encina** elkartekoek Gazpacho estreñoaren eguna ospatu zuten domekan. Estremadurako janari tipikoa da gazpachoa eta berari aurre egiteko prestatzen ei da. Jende ugari hurbildu zen gazpachoa dastatzera eta guztiak bat etorri ziren goxoa zegoela esatean.



● **Rafaela Romero** 23 urteko arrasatearra Gipuzkoako Batzar Orokorretarako lehen idazkaria izango da. Rafaela PSE-EE alderdiko partaidea da eta zuzenbidea ikasten du.

● Eskola Politeknikoak bultzatzen duen Goier proiektuaren bidez lau arrasatear joango dira atzerrira Goi mailako Injineritzako ikasketak bukatzeko. **Miren Maite Oliver** Ingalaterrako Grandfield unibertsitatera joango da, **Eduardo Revilla** eta **Sergio Valles** Suizako Lausanne-ra eta **Susana Soto** Frantziako Nantes unibertsitatera. Eskola Politeknikotika 16 ikasle joango dira


● **Iñaki Odriozola** 34 urteko elgoibartarra Batxilergo Institutuko zuzendari berria da. Maite Mozos bergararra ordezkatu du Iñakik.

● **Carolina Landriscini** biolontxelistak Nicanor Zabaleta beka irabazi du eta musika ikasketak sakontzera Indianako Bloomington Unibertsitatera joango da. Bertan Janos Starker maisuaren zuzendaritzapean burutuko ditu ikasketak. Carolina orain dela 23 urte Argentinan jaio zen eta 1978. urtetik Arrasaten bizi da.

# beatriz

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

# HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**Pedruskoko jokalar**  
**ohiek** lagun arteko partidua jokatu zuten zapatuan. 30 bat lagun elkartu ziren eta bi talde osatu zituzten. Pedrusko B taldekoek 5 eta 3 irabazi zuten, baina emaitza ez zen garrantzitsuena. Helburua elkarrekin egon eta juerga ederra botatzea zen. Kanpantzar jatetxean izan zuten afaria eta gehientsuenek Eskoriaztako jaietan bukatu zuten domeka goizean.



**EKIN taldeko zenbait emakumek** ikasturtea bukatzeko bidaia bat egin zuten. Madril, Toledo eta Aranjuezen izan ziren uztailaren 2tik 4ra bitartean. Errepikatze moduko astebukaera pasa zuten.



“El Rocio” eguna ospatu zuten Al Andalus-eko Udalan. Eguraldia lagun ez izan arren, andaluziarrek salero eta umore onez igaro zuten eguna. Andaluziako arropa

tipikoak, zaldiak, takoneoa, flamenkoa, karrozak eta lorak ez ziren falta izan. Gainera, jende ugari elkartu zen “El Rocio”ko laugarren ospakizunean.



**Txema Crespo** eta **Juxe Zuazua** atxabaltarrak maiatzaren 20an ezkondu ziren Galartzan eta Zelai Zabalen izan zuten bazkaria. Ezkon-bidaian Coloniara joango dira. Zorionak!

EPPELDE

Arreta  
handiko sukaldea

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

**UGARAN**  
jatetxea

Giro  
abegikorra

**ARRASATE**

# Debalde

6. zki

DEBA BAILARAKO MERKATAL GEHIGARRIA

Errotalde Jauregia, z/g - 20570 BERGARA Tfnoa: 76 36 61 - Faxa: 76 08 19

Argitaratzaileak: ARRASATE PRESS, BERRIGARA, ELGOIBARREN, ...ETA KITTO!

Publizitatea: Imanol Amiano eta Antxon Iriondo

Tirada: 19.000 ale

## Deba Bailarako BANATZAILEA

Berezano auzoa, z/g  
☎: 78 25 92 - 78 19 50  
OÑATI



**METS**



- Hergo, Hobby eta  
Caravelair  
KARABANAK  
- Riviera  
AUTOKARABANAK  
- ERREMOLKEAK  
SALMENTA ETA  
ALOKAIRUA  
Kanping eta karaba-  
nentzako osagarriak



## kanpina

ISABA - BELAGOA BAILARA (NAFARROA)

Telefonoak: 948 - 89 30 34 / 89 32 34 Faxa: 948 - 89 30 34

6 plazako 3 bungalow / 60 plazako albergea, 3-5-6-7-8 oheko logeekin  
Jolas eta joko gela, billarra, ping-pong / Sukaldea zure esku  
Akanpatzeko 400 plaza / Taberna - Jatetxea - Supermerkatua  
Garbiketa zerbitzua / Aktibitateak: kainoi jeitsierak, zaldi ibilaldiak, sen-  
derismoa, espeleologia, etabar.

## SUKALDEKO ALTZARIEN ETA ELEKTRAGAILUEN ERAKUSKETA

*Alpe*



**!MASTER**  
CADENA

Mariarats, 4  
☎ eta Faxa:  
88 86 84  
20200 BEASAIN

## Caravanas Oñate



Zubillaga, 20  
20560 OÑATI  
Tel. eta Faxa:  
71 63 50

**Karabanak:** Knaus eta Roller  
**Autokarabanak:** Benimar  
Mota guztietako **Erremolkeak**  
**Mobil-Homeak:** Roller eta  
Benimar  
**MTB eta karreratako**  
bizikletak



Zuretzat eta zure bizikletarentzako akzesorioen  
KONPONKETA ETA SALMENTA

# Iragarki Merkeak

## ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Zarautzen. Amueblatua. ☎ 78 19 50
- Pisua salgai Donostian. ☎ 76 31 79
- Etxea salgai Deban. Herri barruan. 3 logela, 2 komun, saloia eta sukalde dauzka. ☎ 19 25 36 / 70 11 68
- Etxebizitza daukat Jakan, udan alokatzeko. ☎ 74 15 22

## ALOKAIRUAK

- Pisua alokatzen dut Elgetan. Arrate (bazkal-orduetan). ☎ 70 13 94
- Etxe haundia alokatzen da Deban, uztaila eta abuztuan. Alamedan. Idoia. ☎ 19 22 37
- Arrasaten lau edo bost lagunendako pisua alokatzen da. ☎ 77 03 38 / 79 18 03
- Abuztuaren bigarren hamabostaldian Ezkarai edo inguruetan etxea alokatu nahi nuke. Elena (iluntzean). ☎ 19 27 96
- Bi oheko gela alokagai. ☎ 79 07 73

## GARAJEAK

- Garajea salgai. Bergarako Zurradero kaleko 2an. ☎ 76 12 42
- Garajea salgai Bergarako Boni Laskurain kalean. ☎ 76 15 64
- Garajea salgai Eibarko Eigurentarren kalean. Merke. 27 metro karratu. Estanteri edo apal batzuk dohain. Inax. ☎ 31 10 06
- Garajea salgai Eibarko Asua-Erreka kalean. ☎ 86 12 71

## SALEROSKETAK

- Kanpinerako karro-denda salgai. ☎ 76 37 82
- Kanping denda salgai. Oso handia da eta egoera onean dago. ☎ 74 15 22
- Sukaldeko altzariak salgai, sukalde, ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Arantzazu (eguerdian edo gabean). ☎ 79 01 66
- Logelako altzariak (2 ohe, 4 ateko armairua

eta sekreter aulkia) salgai. ☎ 76 47 27

- Bulegoko altzariak (mahaia, aulkia eta armairua) salgai. 40.000 pezeta. Egoera onean. ☎ 76 13 46
- Inpresora salgai. Zuri-beltzean. Ia berria. ☎ 74 20 95
- CD ROM irakurlea salgai. Estreinatuta gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S). ☎ 74 15 69
- Ezkontzarako emazte-gai jantzia salgai. Prezio interesgarria. ☎ 10 81 59

## MOTORRA

- Ford Fiesta SS-N salgai. Egoera onean. Koldo (gaueko 9etatik aurrera). ☎ 58 40 01
- Honda 200 Trail erakoa salgai. 180.000 pezeta. Kaskoa oparitzen da. ☎ 79 69 66
- Vespa 200 beltza SS-W salgai. ☎ 79 46 98
- Korredorezko Biondi bizikleta salgai. Oso

merkea. Josu. ☎ 76 49 30

- Tandem bat gustora alokatuko nuke udarako. Ahal izan ezker, mountain-bike tandem izatea gustatuko litzaidake. Iñigo. ☎ 70 05 97

## ANIMALIAK

- Atxuri baserrian collie arrazako txakurkumeak salgai. ☎ 15 04 01
- Collie kumeak salgai. ☎ 79 08 98
- 5 hilabeteko collie artzai txakurra oparituko nuke. Beatriz. ☎ 76 50 58
- Txakur emea estaltzeko Doberman arra behar dut. ☎ 76 57 67

## LANA

- Genealogia egiteko historialaria eskaintzen da. Arkaitz (20,00etatik aurrera). ☎ 88 30 72
- Etxerako interna zerbitzua behar baduzu, deitu. ☎ 10 30 03
- Etxeetan lanak egingo nituzke edo umeak zaindu. M<sup>a</sup> Angeles. 10 03 07

**Manuel J.  
Perona**

**ORTODONTZIA  
EGOKITUA  
ZEURETZAKO**

EE.BB.ko Kaliforniako  
Roth Williams Center-en diplomatua  
R.P.S. 216/94

**Haur eta Helduen  
Ortodontzia**

**DATO, 19 - 1.**

**Tfnoak: (945) 23 29 61 / 23 32 12**

**01005 GASTEIZ**

**MEDIKUNTZA ALTERNATIBORAKO  
GABINETEA  
MEDIKUNTZA PREBENTIBOA**

*Heste-garbigeta  
Idorreria  
Aerofagia  
Gaisotasun kronikoak  
Gaitz digestiboak  
Gorputzaren garbigeta  
Hammer Doktoarearen metodoa  
Psikeari laguntzeko terapiak  
Numerologia analitikoak:  
Pertsonaren azterketa osoa,  
orainaldian, iraganean eta  
etorkizunean*



**Zuzendaria: Joan P. Goikoetxea  
Paseo de la Senda, 5 - 1. ezk.  
Gasteiz-Vitoria Tfnoa: 945 - 14 83 48**



**Carrion  
música, s.a.**

Instrumentu musikalak  
Pianoak: Yamaha, Samick, Kawai...  
marka guztiak.  
Kitarra elektrikoak, anplifikagai-  
luak, teklatuak, MIDI sistemak.  
Zerbitzu teknikoa.

Tabernak eta diskotekak soinu-  
tuztatzen ditugu. P.A. Ekipoak.



Manuel Iradier, 20  
☎ (945) 23 07 49  
Faxa: 23 14 25  
01006 GASTEIZ



M<sup>o</sup> NIEVES ALVAREZ GARCIA  
AUDIOPROTESISTA

*Ziur al zaude erabiltzen  
dituzun audifonoek  
entzun dezakezun guztia  
entzuarazten dizutela?*

EUSKADIKO  
ZENTRU  
AUDIOPROTESIKOA

*Behar bezalako  
adaptazio ezak  
entzuteko ahalmenak  
mugatzen ditu.*

DATO, 18 - 4. TFNOA. (945) 13 76 01  
01005 GASTEIZ

*Ekainaren 27an, asteartean Hasten gara!*

# UDAKO BEHERAPENAK '95

*Prezio merkeagoak... ezinezkoa!!  
andre-arropak, kirol, ume, gizonetzko eta etxerako sekzioetan.*

*"Hondartzarako toailetan" aukera ederra  
prezio paregabeetan.*

**Kalitatea** eta **Ekonomia**... zeure etxerako.



**ECOCENTRO**

Domingo Beltrán, 12 • Los Herrán, 34 • Portal de Villarreal, 28.  
VITORIA • GASTEIZ

# ETXEPARE - BILINTX



## LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

Ibargarai, 12 - Tlf. 76 40 50  
20570 BERGARA

# Aurrezkiaren sari,

Uztailaren 28ra arte, **kutxan**

aurreratuz gero, oparia eramango


duzu etxera. Nahi adina opari.

Hiru hilabeterako diru-ezarpen

bat egiterakoan, interesak aurretik

emango dizkizugu-eta, mahai gaineko erloju, lauskigailu bikoitz edota

camping edo hondartzarako 25 osagaidun picnic-sorta bihurturik.



**Hermle Quartz Erlojua**  
250.000 pta.ko ezarpena



**Ufesa Citropress Duo Ex-7634 Lauskigailua**  
400.000 pta.ko ezarpena

# Berehalako Opari



**Thermos Cooler**  
25 osagaidun Picnic-Sorta  
600.000 pta.ko ezarpena

Erraza da. **kutxako** edozein

sukurtsaletara etorri eta galdetu

**Berehalako Oparien** sustapenaren

berri. Aurrezki egin, eta kito. Eraman

ditzakezu etxera opariak. **Berehalaxe.**



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa  
caja gipuzkoa san sebastián

# XABIER ZUBIZARRETA

## “Alkatetza ateratzeko esperantza genuen eta orain eustekoa”

Maria Agirre


**Z**ortzi urtez alkatetzan egon ondoren, beste lau urtez zeregin berdinean jarduteko gertu dago Xabier Zubizarreta. Oraingoz Udala osatu barik dago baina Alkatea aukeratuta dagoenez, berarekin hitzegindugu bera zerbait gehiago ezagutu eta agintaldi berri honetarako dituen asmoak zeintzuk diren jakiteko.

- Zergatik aurkeztu zinen hirugarren aldiz?

- Arrasateko Herri Batasunak eskatu zidalako aurkeztu nintzen berriro ere, hori izan zen arrazoi nagusia. Esan nien behin zortzi urtetan alkatetzan egonda, urte gehiagoz jarraitzea ez zela egokia, baina jarraitzeko eskatu zidaten eta azkenean amore eman nuen.

- Udal hauteskundeetan zerrendari begiratzen zaiola esaten da eta HBk boto kopurua igotzea lortu du. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

- Nire ustez Euskal Herrian sigleia asko begiratzen zaie, baina egia da udal hauteskundeetan zerrendari ere asko begiratzen zaiola. HBk boto kopurua igotzeak, orain arte eraman dugun bidearen



“Arrasateko Herri Batasunak eskatu zidalako aurkeztu nintzen hirugarren aldiz”.

onespena adierazten du. Niretako poz handia izan da.

- Arrasatearrek nota ona jarri dizute...

- Herri Batasunari jarri diotela esango nuke. Gestioan ez naiz ni bakarrik egon, Udaletxean lagun askok egin du lan. Alkate naizelako ni

agertu izan naiz toki desberdinetan, baina benetan esaten dut talde bat garela, eta erabaki bat hartzerakoan taldeak egiten duela lana.

- Beti esan duzu Alkate izateko esperantza zenuela. Zuretako ez zen sorpresa izan bi zinegotzik boto zuria ematea?

- Herri Batasunak alkatetza ateratzeko esperantza nuen. Sorpresa baino, poza ekarri ziguten bi boto zuriek. Aukerak gutxi izan arren, horrelako zerbait gerta zitekeela susmatzen genuen.

- Baina plenora joan zinetenean zer espero zenuten?


- Normalena guk alkate-tza ez eskuratzea zen, baina bagenuen esperantzarik.

**- Hala ere, badirudi alkatetzak ez dizula asko iraungo.**

- Ez dakit. Lehen alkatetza ateratzeko esperantza genuen eta orain alkatetzari eustekoa dugu. Guri alkatetza kentzeko arrazoi objektiborik ez dago, baina hirukoak zentsura mozioa aurkezteko asmoa duela dio. Hala ere hirukoak lehen ez zuen funtzionatu eta orain ere berdina gerta daiteke. Joan den astean EB-rekin eta PP-rekin hitzegin nuen baina hirukoa osatzen duten alderdiek uko egin zioten elkarrizketak izateari. Egoera berri hau baloratzen ari gara, denbora laburrenean Udala abian jarri nahi dugu eta.

**- Elkarrizketetara ez agertzeak zer esan nahi du zuretzat?**

- Nik ez dakit boto zuriak zein alderdik eman zituen, beraz boto horiek eman eta ez etortzearen zentzugabekeria ez dakit norena den. Larriagoa da zortzi urtez elkarrekin gobernatzeko egon eta elkarrizketei uko egitea. Hori benetan jokaera desegokia da, ez da bidezkoa.



"Denbora laburrenean Udala abian jarri nahi dugu".

**- Zergatik esaten duzue boto gehien duenak izan behar duela alkatetza? Beste hiru alderdiek batera zuen baino boto gehiago badituzte?**

- Errespetatu egin behar da boto-emaleak nori ematean dion botoa, eta bi edo hiru alderdik batera joan nahi

badute, hauteskunde aurretik adierazi behar da asmo hori. Ondoren esatea, boto-emaleari iruzur egitea da eta hori kalean entzuten diren komentarioetan somatzen da.

Legeari izaera presidentzialistaren bidez gainera, alkatetza duenak gehien-

goa ez duena baztertu egin dezake gestio gintzatik eta nire iritziz hori ez da zuzena. Udalak herritarrengandik hurbil egon behar du eta herritarren portzentai handi bat bazterteak, herrian tentsioa eta desoreka sortzen du. Borondatea dagoen heinean, herritar guztiaren ordezkaritza egon behar da Udalean.

**-Arrasaten beldurra dago?**

-Arrasaten beldur bereziren bat dagoen galdetzen badidazu, uste dut ezetz. Azken urteetan Arrasaten ez da ezer apartekorik gertatu herrian beldur berezirik egoteko. Euskal-Herrian gaur egun beldur desberdinak sentitzen ditugu.

**- Boto zuriak beldurraren harian eskegi izan direlako galdetu dizut.**

- Nik ez dakit boto zuriak zergatik eman zituzten, baina ez dut beldurratik eman zituztenik pentsatzeko arrazoirik. Boto zuriak beldurrez eman badituzte, hirukoa ere beldurratik osatu dela esan daiteke.

**-Arrasateko Udaletxea burokratizatuegia dagoela eta politikoek beharrean funtzionarioek agintzen dutela esaten da.**

## Hamar erantzun hitz gutxitan

**- Dyane 6-ak ITVa pasatzen du?**

- Bai. Hilabete honetan pasako du berriz ere.

**- Ez duzu "Plan Renovea" aprobetxatzea pentsatu?**

- Bai pentsatu izan dut baina uste dut horrexegatik ez dudala aprobetxatu.

**- Inaugurazio desberdinetan ikusten zaitugu. Eroso sentitzen zara?**

- Batzutan beste batzutan baino erosoago baina gauzak inauguratzea baino

estreinatzea da garrantzitsuagoa.

**- Udaran nora joango zara?**

- Joan inora ere ez. Leku batetik bestera ibiliko gara.


**- Eltzikorta baserrian asko egoten zara?**

- Egon nahi nukeena baino askoz ere gutxiago.

**- Etxean nork agintzen du?**

- Laurok.

**- Etxeko lanik egiten duzu? Zeintzuk?**



- Bai baina gutxitan. Erosketak ez ditut egiten baina gainontzeko lanak egiten ditut.

**- Semeak pozik daude aita Alkatea dela eta?**

- Batzutan bai eta beste batzutan ez.

**- Ordu asko kentzen dizu alkatetzak?**

- Kendu ez, baina orduak sartzen ditut.

**- Lasai lo egiten duzu?**

- Bai, horretarako ez dut arazorik.

- Nire ustez desburokrazitatu egin da. Burokrazia aipatzerakoan zer esan nahi den hartu behar da kontuan. Burokraziak gestioaren kontrola esan nahi du, baina askotan, agintariak nahi duena egin edo nahi ez duena egin barik uzteko erabiltzen da. Nik ez dakit zein zentzutan hitzegiten duten burokraziaz, baina uste badute burokrazia politikoa Udaletxera etorri eta berak nahi duena egitea dela, orduan beharrezkoa da. Udaletxeko langileen profesionaltasuna defendatu eta erabili egin behar da. Profesionaltasunetik urruti dabilena ez doa bide onetik. Politikoez ezin dute irizpide tekniko barik erabakirik hartu.


- **“Arrasateren estiloa”, “Arrasate is different”... entzun izan da. Horrela da?**

- Zentzu batean esan daiteke baietz eta bestean ezetz. Bailara honetan gestiogintzarako eta parte hartzeko kulturaxo bat garatu dela esan ohi da. Adibidez, herrian elkarre gastronomikoak hainbeste urtetan elkartuta egotea zerbaiten adierazgarri da, lana batera egiteko ohitura dago.

Beste batzutan, Arrasateko HBren jokaera desberdina dela adierazteko esaten da herria desberdina dela, baina ni ez nago horrekin ados. Arrasaten eta beste herri batzuetan HBk egin duen planteamendua berdina da. Gertatzen dena da planteamendu horrekiko erantzunak desberdinak izan direla.

- **Pentsa dezagun beste lau urtez Alkate izango zarela. Orokorrean zeintzuk dira herri-rako dituzuen planak?**

- Garapen ekonomikoaren inguruan lan egitea da helburu garrantzitsuen eta hori bultzatzeko ezagunak diren ekimenak (CEI...) bultzatuko ditugu. Beste zeregin garran-



“Arrasatek ondo heldu dio biztanlegoari”.

tzitsu bat ingurugiroarena izango da eta hau aurreko helburuaz lotuta joango da, ingurugiroak lanpostuak sor ditzake eta. Etxebizitzaren arazoak ere lehentasuna izango du, bizi izateko behar dugun habitxoa beti izango da garrantzitsua.

- **Herriko biztanleria jeitsiz doa. Arazo handia da hori?**

- Euskal-Herrian gertatzen ari den fenomeno da. Hiriburuak eta kostaldeko herri batzuk biztanleria irabazi dute baina tendentzia horiek geratuko dira. 70. hamarkadan migrazioa handia izan zen, baina olatuek behera ere egiten dute eta nire ustez beherakadaren unean gaude. Hamar urtetan 1.800 biztanle galdu ditu Arrasatek baina beste herri batzuekin konparatuz, laurdena ere ez du galdu. Arrasatek, ondo hel-

**“Herritarren portzentai handi bat baztertzeak herrian tentsioa sortzen du”**



**“Politikoez ezin dute irizpide tekniko barik erabakirik hartu”**



**“HBn gustora sentitzen naiz eta jarraitzeko asmoa dut”**



**“Garapen ekonomikoaren inguruan lan egingo dugu”**

du dio biztanlegoari. Hemen-dik hogeit urtera zein biztanlego izango dugun aztertu da eta Arrasatek eutsi egingo diola uste da.

- **HB barruan eroso sentitzen zara?**

- Bai, benetan oso gustora nago. Zailtasun asko ditugu guk geuk nahi dugun proiektua gauzatzeko baina hildo politikoari dagokionez HBrekin nago. Gustora sentitzen naiz eta jarraitzeko asmoa dut.

- **HBren barruan badago erreflexiorik eta autokritikarik?**

- Bai, hori erakusten du Oldartzen prozesuak. HB bakarrik da gai horrelako prozesu bat aurrera eramateko. Gasteizko kontseilari izandako batek ere hori esan zidan. HB barruan eztabaidarako gaitasun handia dago.



Campuseko neska mutilek Juan Antonio San Epifanio, Epi, izan zuten irakasle asteazkenean.

## Urbina Maltzaga saskibaloitaldekoak harrobia lantzen

Urbina Maltzagako kadete eta jubenil taldeetako 20 neska mutil Basconia Taugresek antolatatu duen "Campus" batean ari dira parte hartzen. Domekara arte, saskibaloitaldeko jokalariek hauek Gasteiz izango dira eta saskibaloian jokatzeko tekniken ikastaroa hartuko dute.

Bestalde, 17 urteko Ander Mallabiarrena eta Yagoba Gamarrak eta 16 urteko Roberto Gutierrezek bigarren mailako Basconia Taugresek inongo egingo dute aurreneboraldia. Izan ere, hiru gazte hauek Basconiak bigarren mailan duen taldean joka dezakete datorren denboraldian. Urbina Maltzagako arduradunek esan

dutenez, gazteegiak dira EBA ligan jokatzeko eta esperientzia hartzeko 2. maila aukera ona izan daiteke.

EBA ligako taldeari dagokionez, saskibaloitaldeko zuzendaritzakoek dagoeneko taldeko jokalaritza batzuekin hitzegin dute. Arruek eta Aitor Saez de Viterik ez dute taldean jarraituko baina oraindik ez da erabaki gainontzekoekin zer egin. Jokalari atzerriarrak dagokionez, jakin izan dugu ekialdeko merkatua aztertzen aritu direla Urbina Maltzagakoak, baina lehen harremanetan ez dute euren aurrekontura egokitzen den jokalaririk aurkitu. Beraz, merkatu amerikarra ez dute

baztertu eta espektakulosa eta taldearen beharretara egokitzen den jokalariren bila dabilta. 20 egun barru Urbina Maltzaga taldean atzerriarrak egongo den edo ez erabakiko dute.

Saskibaloiarekin jarraituz, Urbina Maltzaga taldeak 3 x 3 saskibaloitxapelketa antolatuko du uztailearen 10 eta 11 arteko. 81-82 eta 83-84 urteetan jaiotako neska mutilek har dezakete parte eta neurketak Iturripeko kanpoko kantxan jokatuko dira. Taldeak hiru edo lau jokalariz osatuko dira. Alebinen partidua 12 puntura izango da eta infantilena 18ra. Taldeak mixtoak izan daitezke.

## LABURRAK

### Multi kirolak Musakolako kiroldegian

Multi-Kirolak jarri ditu abian AUKEAk 7 urtetik 14 urte bitarteko neska mutilentzat. Uztailearen 3an hasi zen multikirolen ikastaroa eta 21a arte iraungo du. Mikel Morrasen ardurapean partaideek zenbait kirol egiteko aukera izango dute kiroldegian, hala nola, frontenis, beisbola, futbola, saskibaloia, urreko jokuak... Astelehenean ostiralera emanango da ikastaroa eta 7 urtetik 10 urte artekoek 11 etatik ordu bata arte izango dute kirola. 10 urtetik 14 urterarte arratsaldeko 4 etatik 6 etara. Multikirolekin bi helburu lortu nahi dira: kirola egitea eta une berean ondo pasatzea hain zuzen ere.

### Zikloturisten irteera

Arrasateko zikloturistek 99 kilometroko irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Deskarga, Urretxu, Azkoitia, Mandubia Gaina, Salbatore, Legazpia eta Arrasate. Bizikleta txangoan parte hartu nahi dutenek goizeko 8.30etan izango dute zita Monterronen.

Uztailean zikloturistek beste bi irteera egingo dituzte 16an eta 23an. Abuztuan, berriz, atsedena hartuko dute eta irailean berriro elkartzeko dira domekeroko irteerak egiteko.

**ONGI ETORRI,  
konpainia onean  
egoteak badu  
abantailik.**



- Bizitza
- Etxebizitza
- Autoa
- Etabar

Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

# III. mailako taldea itxura berrituta datorren denboraldiari begira

**M**ondra futbol elkar-tekoak 3. mailako taldea egituratzen ari dira datorren denboraldirako. Zenbait jokalarik, dagoeneko, utzi du Mondra taldea. Josu Urzelai atezainak bigarren B mailako Real Union taldean jokatuko du datorren denboraldian, Luis Mari Madinabeitia eta Kepa Azkue Aretxabaletako UDA taldera joango dira. Iker Egaña oñatiarrak Aloñamendi taldean jokatuko du. Fermin Carrillok ere ez du jarraituko Arrasateko taldean. Rafa Luengo eta Ignazio Rodriguezek eta Iker Balzategik seguruenik futbola utziko dute. Hala ere, Ignaziok badu beste talde baten eskaintza. Josu Maturana, berriz, ez da Mondrako jokalaria izango eta beharbada ez du futbolean jarraituko. Igor Gordobilek Gasteizko Aurrera taldearekin egingo du aurrendenboraldia. Iaztik hamar baja ziurak izango ditu Mondra taldeak.

Bestalde, Juan Luis Arranzburuzabala eta Xabi Urbinak



Aldaketa ugari izango da datorren denboraldian Mondra taldean.

oraindik ez dute baieztatu taldean jarraituko duten edo ez, baina itxura guztien arabera horrela izango da.

Fitxaketa berriei dago-kienez, Carlos Uruburu Abadiño jokalaria eta orain arte Ermua taldeko jokatari, Eskoriatzako Errastik sinatu dute Mondrarekin. Errastik jubniletan Errealarekin jokatu zuen. Bergaratik Zabaleta etorriko da eta Durangotik Zuluetan. Eskoriatzatik berriz, Arei-

tio atezaina eta Leiba. Haeuz gain, Durangotik beste jokarlari bat etor daiteke.

Jokalarien bajak eta altak une honetan guztiz zehaztu barik dauden arren, talde desberdinetan izango diren entrenatzaileak izendatuta daude. 3 mailako entrenatzailea Nedza Zivojeciv izango da, bere laguntzailea Neka Galan. Lehen erregionaleko taldea Jose Luis Sextoren ardurapean egongo da. Emakume tal-

deko entrenatzailea, iaz moduan, Juanina Garai izango da. Ohorezko liga Txiuk zuzenduko du. Bigarren jubniletan taldea Imanol Bolinagaren ardurapean egongo da. Lehen kadeteen entrenatzailea Ibai Madariaga eta bigarren kadeteena Unai Rubio izango dira. Infantilena, ostera, Juan Luis Arkauz.

3 mailakoek uztailaren 10ean hasiko dira aurrendenboraldia prestatzen.

## ARRASATE, ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO LANGILEAK BEHAR DIRA:

Peoi industrialak, maisu industrialak-FPII, administrazio laguntza laguntzileak, txoferrak, pintoreak (pistola) eta hurrengo sailtan esperientzia duten 1. mailako ofizialak eta peoi espezializatuak:

- .- Prentsa, muntaia, bizarra.
- .- Mekanika, elektronika.
- .- Kontrol numerikoa.
- .- Hotzetako estanzazioa.
- .- Soldadura (TIG, MIG, gasgarra, aluminioa, kobrea).

Curriculum eta nortasun agiri neurriko argazkia bidali Donostiako 1846 / 20006 posta kutxatilara, kartazalean lanpostuaren izena eta bizilekua adieraziz.



*Kalitate gorenari leihotzen*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

# Angel Alonso

## Leintz Zeramika eskolako lehendakaria


Aurten Keramika Eskolako lehendakari izendatu dute arrasatear hau. Eskolari itxura berria ematea eta keramika egitea jendeak uste duena baino gehiago dela erakutsi nahi du. Lokalez aldatu dutela eta, eskola "berriz jaño dela" dio Angelek.

— Gaur egun "Leintz Keramika Eskola"ko lehendakaria zara. Nola sartu zinen eskolan?

— Beno, nik duela bi urtetik honako historia ezagutzen dut bakarrik, orduan sartu bainintzen bertan. Herri mailan antolatu zen ikastaro baten bidez sartu nintzen eskolan, betidanik gustatu izan baitzait keramika. Lehen batzar orokorra egin zenean labearen arduradun izendatu ninduten eta azkenengo batzar orokorrean lehendakari izendatu naute.

— Zein da eskolaren gaur egungo egoera?

— Orain trantsizio garaian gaudela esan daiteke, lokalez aldatu baitugu. Joan den urteko Santamas inguruan, Udalak Geltoki Zaharreko etxea uztera behartu gintuen, bertan INEMeko bulegoak jarri behar zituztelako. Beste lokal bat eskatu genion Udalari eta azkenean, Geltoki Zaharraren parean dagoen lokal bat



eman digute, Mankomunitatearena 62 m<sup>2</sup>ko lokala zen, oso txikia, eta borroka asko egin ondoren, ondoko beste 32 m<sup>2</sup>ko lokal bat ere lortu dugu, beraz, guztira, ehun bat metro karratuko lokala daukagu. Duela hilabete eman ziguten eta orain txukuntzen ari gara. Udalak

labe, elektriko bat erosteko dirulaguntza ere eman digu eta labe hori noiz helduko zai gaude, berriro martxan jartzeko.

— Zenbat bazkide zarete?

— 30 gutxi gorabehera. Dena dela, eskolan sartu ahal

izateko, ez da beste munduko ezer jakin behar. Herriko jende guztiarentzat dago zabalik, arau batzuk errespetatu, beste ezer ez a egin behar.

— Keramikaz ezer ez dakien pertsona bati nola erakusten diozue?

— Urtero urtero ikastaro bat egiten dugu eskolako bazkide izan nahi dutenentzat. Ikastaro honetan edonork har dezake parte, baina herrikoiei lehentasuna ematen diegu. Helburua, bazkide egin baino lehen, keramikaren mundua zer den ezagutu dezatela, askok, keramika egitea, jarri bat edo pote bat egitea besterik ez dela uste baitu. Bestalde, barne ikastaroak ere egiten ditugu. Ikastaro hauen helburua, bazkideak gehiago jatzeta izaten da, beti baitaude gauza berriak ikasteko. Ikastaro hauek Gatzagako Keramika lantegikoak ematen dizkigu.

— Badago keramikarako zaletasunik Arrasaten?

— Bai, badago, baina azken urte hauetan eskolaren irudia asko trakestu da eta herriko jendea eskolara hurbildarazi egin behar dugu berriz ere. Nire helburua keramikak dauzkan posibilitateak jendeari erakustea da, keramika ez baita pote bat egin eta saltzea. Keramikarekin mila gauza egin daiteke: eskultura etabar.

.....

***"Duela hilabete eman ziguten lokal berria eta orain txukuntzen ari gara. Labe elektriko hori noiz helduko zai gaude, berriro martxan jartzeko"***

**GORKA**  
**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tfnoa: 77 13 78

Elektroinjekzio  
 Zerbitzua

LUCAS

**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispera kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
 ARRASATE

**"PAL"**  
 burdindegia,  
 brikolage  
 eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,  
 Tfnoa: 79 31 99



# Urteko kultur ekintzak zerrendan

**J**oan den urteko urritik aurtengo ekainera bitartean makina bat kultur ekintza burutu da herrian: kontzertuak, antzerkiak, dantza ema-

naldiak, musika kontzertuak, zinea, haurrendako ikuskizunak etabar. Udalak antolatutakoak hartuz, ikasturte osoan zehar Amaia Antzokian izan direnak hila-

betez hilabete eta egunen arabera zerrendan doakizue. Interesa duenak emanaldi bakoitzean izan den ikus-entzuleen kopurua ere ikus dezake.

## 1994

### URRIA .....Ikusleak

- 1 **Antzerkia:** "In Fraganti": "Hala bazan ez bazan..." .....193  
 2 **Haur zinea:** "Atrapado en el tiempo" .....92  
 9 **Haur zinea:** "Ipar haizeko kondaira" .....60  
 16 **Haur zinea:** "Asterix: El golpe del menhir" .....195  
 30 **Haur zinea:** "Navigator: Una odisea en el espacio" .....93

### AZAROA .....Ikusleak

- 1 **Zinea:** "Reservoir dogs" .....127  
 6 **Haur zinea:** "Todos los perros van al cielo" .....106  
 10 **Zinea:** "El juego de Hollywood" .....103  
 12 **Antzerkia:** Taun-Taun "Makinatu" .....154  
 13 **Haur zinea:** "El hotel de los fantasmas" .....161  
 17 **Zinea:** "Urte ilunak" .....70  
 18 **Kontzertua:** Bill Thomas .....360  
 20 **Haur zinea:** "El rey del sol" .....95  
 24 **Zinea:** "Blade Runner" .....161  
 27 **Haur zinea:** "El reino del oso polar" .....91

### ABENDUA .....Ikusleak

- 1 **Zinea:** "Poison" .....112  
 9 **Antzerkia:** Karraka "Pekata Minuta" .....380  
 10 **Haur ikuskizuna:** "Katuen Testamentua" .....1.036  
 11 **Haur zinea:** "Solo en casa II" .....183  
 15 **Zinea:** "Les amants du Pont-Neuf" .....120  
 29 **Zinea:** "Riff-Raff" .....100

## 1995

### URTARRILA .....Ikusleak

- 27 **Antzerkia:** Maskarada "Monstruo Sakratuak" ..... 130

### OTSAILA .....Ikusleak

- 16 **Zinea:** "Fresa y chocolate" ..... 413  
 17 **Antzerkia:** Bederen 1 "Errenta" .....110  
 23 **Zinea:** "Azul" .....185

### MARTXOA .....Ikusleak

- 2 **Zinea:** "Candyman" .....106  
 3 **Antzerkia:** Tanttaka "Todas culpables" .....254  
 9 **Zinea:** "Orlando" .....160  
 16 **Zinea:** "Ley 627" .....93  
 24 **Antzerkia:** Arteszena "Mephisto" .....  
 25 **Antzerkia:** Arteszena "Mephisto" .....  
 30 **Zinea:** "El lado oscuro del corazón" .....172

### APIRILA .....Ikusleak

- 7 **Kontzertua:** Albert Pla .....  
 28 **Kafe Antzerkia:** Saltimbanqui "Cuentos de tradición..." .....99  
 29 **Antzerkia:** Bululu Theatre .....80  
 30 **Zinea:** Beldurrezko zine maratokia .....134

### MAIATZA .....Ikusleak

- 4 **Zinea:** "Blanco" .....85  
 5 **Kafe Antzerkia:** Lourvier's "Lourvier's saloon" .....82  
 6 **Kafe Antzerkia:** Ñake "Pocos y mal avenidos" .....69  
 11 **Zinea:** "Lloviendo piedras" .....103  
 13 **Dantza:** Metros "Miénteme, por favor" .....97  
 18 **Zinea:** "Olivier Olivier" .....114

### EKAINA .....Ikusleak

- 1 **Zinea:** "Mi pie izquierdo" ..... 111  
 8 **Zinea:** "Europa Europa" .....122  
 15 **Zinea:** "Halfaouine" .....124  
 16 **Antzerkia:** Maskarada "Ernesto izatearren garrantzia" .....128  
 22 **Zinea:** "Johnny Suede" .....69  
 29 **Zinea:** "Compañeros inseparables" .....

### GUZTIRA

- ZINEA** (22 emanaldi) : .....2.704  
**HAUR ZINEA + HAUR IKUSKIZUNAK** (10) : .....2.112  
**ANTZERKIA** (9) : .....1.933  
**KAFE ANTZERKIA** (4) : .....330  
**KONTZERTUAK** (2) : .....700  
**DANTZA** (1) : .....97

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84

ARETXABALETA



### MARKO-JARTZEAK

## ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE


Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

## M ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA

Tfnoa: 79 08 07



rain urte batzuk Udalpe elkarteak antolatzen zuen Umeen Tanborrada eta nahiko ezberdina izaten zen, gainera. Orduan neskatilak kantinera, abanderatu, dama eta erregina izaten ziren, eta urtero aukeratzeko zituzten, Udalpe elkarteko bazkideen seme-alaba eta familiarteko umeen artean. Tanborrada baino aste pare bat lehenago merienda antolatzen zen Udalpen eta bertan egiten zuten aukeraketa.

Mutikoez sukaldari, tanborrero eta barrilero irteten zuten eta entsaioak egin behar izaten zituzten.

Erretratu hau 1967ko San Pedro egunean atera zuten, egun horretan egin zen eta San Juane-tako tanborrada. Eguneko ospakizuna hasi aurretik atera zuten kantinerek argazki hau eta 11 eta 12 urte zituzten orduan. Zutik ezkerretik, **Itziar Etxebarria, Lurdes Velez de Mendizabal, Igone Ajuria, Edurne Iturbe** eta **Itziar Azkoaga**.

Makurtuta, **Marisa Arribas** eta **Anabel Nafarrate**.




# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Z E R N A H I A G O ?

## Ana Mendiola Jazz-dantza irakaslea



- **Zer garrantzi dauka dantzak zure bizitzan?** Dantza, niretzat, bizitzeko era bat da.
- **Zer moduzko dantzariak dira arrasatearrak?** Oso azkarrak.
- **Salsa dantzatzeko kanta bat?** "Los Vamvam" taldearen edozein.
- **Eta jazz-a dantzatzeko?** "All that Jazz" kaseteko edozein.
- **Zer behar da dantza ondo egiteko?** Dantzan egiteko gogoia eta borondatea.
- **Zuretzat ez da gogorra ikastaroz-ikastaro ibiltzea?** Beno, bere alde ona dauka, jende asko ezagutzen baita; baina ikasleek ez dute formazio osorik jasotzen.
- **Zure ametsa?** Dantzari ordu gehiago eskaini ahal izatea eta koreografia lanak egitea.
- **Zure seme-alabek dantzan egiten dute?** Nagusienak bai.
- **Nola ezagutu zenuen zure senarra, Arnaldo Patterson?** Madrilgo dantza eskola batean; bere ikaslea nintzen.
- **Lesio asko izan duzu dantzaren ondorioz?** Ezkerreko hanka minduta daukat.
- **Zergatik dauden horren Jazz-dantza eskola gutxi Euskal Herrian?** Jazz dantza asko komertzializatu delako eta jendeak irudi okerra egin duelako.
- **Zenbat kaloria gal daitezke jazz klase batean?** Ez dakit baina kilo bat erraz gal daiteke.
- **Dantzari bat?** Isadora Duncan.
- **Liburu bat?** Louise Brooks dantzariaren biografia liburua.
- **Donostiako txokorik politena?** "Mari" eta "Coro" kaleen arteko txokoa; bertatik Santa Maria elizaren pareta bat ikusten da eta izugarri polita da..
- **Lehen muxua: non eta noiz?** Aspaldi; Arnaldo Pattersonnek Bilbon antolatu zuen lehen dantza garaikide eta dantza jazz ihardunaldietan.
- **Telebistako programa bat?** "TVE 2"ko dokumentalak gustatzen zaizkit, baita "Metropolis" eta "III Milenio" programak ere.
- **Zer ez zenuke sekula jantziko?** Takoi handiko zapatak.

LABURRAK


### Zinea Monterronen

Uda aldera urtero gertatzen den moduan, aurten ere Monterron parkean zinea ikus-teko aukera izango dugu. Zinea ostegunero gaueko 10.30etan izango da: 13an "Cuatro bodas y un funeral" pelikula eskainiko da; 20an "Matinee" filmea eta 27an "Amor a quemarropa". Egu-raldi txarraz filmeak Amaian eskainiko dira.

### Ukraniako "Kalyna" dantza taldea

Gaur Ukraniako "Kalyna" folklore taldeak emanaldia eskainiko du Monterronen gaueko 10.30etan.

Talde hau Ukraniako Dniepropetrovskent sortu zen 1978. urtean "Haurtzaro zorionsua" izeneko dantza eta musika eskolatik abiatuta. Taldearen espektakuluak, musika, kantu folkloriko poli-fonikoen konposizioak eta dantza ederrak eskaintzen ditu. Sarrerak takilan bertan salduko dira 500 ptatan.



## URONDO elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76  
ARRASATE

• ESAERA •

“Bidaiatzea pauso  
bakoitzean jaiio eta  
hiltzea da”

HUGO


• JEROGLIFIKOA •



Zer dakarzu afaltzeko?

J. B. AGORRIA

• GURUTZEGRAMA •



**Horizontalak** 1. Ase denaren egoera. 9. Debekatu. 10. Oinarrizko edaria. 11. (Ald.) Izaera bereko gauzen eskala. 12. Izenpe. 14. (Ald.) Kolore mota bat. 15. Bilo. 16. Kanpo. 17. Usai-menaren egoera.

**Bertikalak** 1. Aranburu, Rugby taldeko presidentea. 2. Irabazi duenari ematen zaio. 3. (Ald.) Ezaugarri, marka. 4. Infusio mota. 5. (Ald.) Ikara. 6. Samur bihurtu. 7. (Ald.) ENBARAZUaren eskuin aldean. 8. (Ald.) Erditzerakotan laguntzen duena. 13. (Ald.) Joan aditzaren erroan.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Eguzkia hartzerakoan krema eman eta buruan txapela ipini.

**Taurus** Norbaitek zerbait aurpegi-ratzen badizu ez kasurik egin.

**Gemini** Keba, zuk ez duzu inoiz gezurrik esan, ezta?

**Cancer** Ideiak badituzu baina horiek aurrera nola eraman jakitea falta zaitzu.

**Leo** Zure begiradak distirak beharrean tximistak botatzen ditu.

**Virgo** Tarzanek baino oihu handiagoak botatzen dituzu.

**Libra** Edozerk hotzikara ematen dizu, benetan arraroa zara.

**Scorpio** Burua hodeiturik duzu. Beti ametsetan.

**Sagitarious** Jairik jai joaten zarenean txistua etxean utzi.

**Capricorn** Zapatak kendu baino lehen sokak askatu behar dira.

**Aquarius** Ezin zara geldirik egon. Txoratzen ari al zara?

**Piscis** Pin, pan, pun! Pentsatu orduko oporretan.



**Arrasateko  
INSTITUTUAN**  
datorren ikasturtean, 1995-96,  
**H.S.A.L. (L.O.G.S.E.)**  
**Batxiler Berriak**

# BILERA BEREZIA

DATORREN IKASTURTERAKO (1995-96)  
HIRUGARREN MAILARAKO  
MATRIKULA EGIN DUTEN IKASLEAK ETA BERAIEN GURASOAK

**EGUNA:** UZTAILAREN 13a, OSTEGUNA

**ORDUA:** Euskaraz, ARRATSALDEKO 6etan  
Gasteleraz, ARRATSALDEKO 7etan

**TOKIA:** INSTITUTUKO ARETO NAGUSIA

## TELEBISTAREN TXOKOA



Arrasate Telebista

## Ikasi euskara ATBn!

**A**rrasate Telebistak Udal Euskaltegiarekin egin duen akordio bati esker, uztailearen 20ra arte "Bai horixe!" programak emitituko ditu egunero egunero informatiboen ostean. Guztira 13 programa izango dira.

Dudarik gabe, euskera ikasteko modu

erraz, atsegin eta dibertigarria duzu hau. Gainera, gaur egungo puntako aktoreak euren lehen telebista pausoetan ikusi ahal izango dituzue, hala nola, Jose Ramon Soroz, Mikel Garmendia, Ramon Agirre, Agustin Arrazola, Olatz Beobide, Elena Irureta eta Eneko Olasagasti.

## KOMIKIA



Sagu-Zar

## PROGRAMAZIOA



## UZTAILEKO PROGRAMAZIOA

Udako Programazioarekin hasi garen, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 8etatik 9.30etara bitartean, ordu laurdeneko informatiboak eta ondoren beste ordu laurdeneko "Bai horixe!" euskera ikasteko programak ikusi ahal izango dituzue.

## OHARRA

Datorren ikasturterako programazioa lantzen hasita gaude. Informatibo berriak, lehiaketa desberdinak, aurpegi berriak... Baina telebista herri guztiari dago zabaldua eta zure kolaborazioa ere asko eskertuko genuke. Programa baterako ideien bat baduzu eta ideia hori garatu nahi baduzu, hurbildu zaitez guregana. Zure ideia bideragarria den esango dizugu eta laguntzarik behar izanez gero, ez duzu faltan izango. Zatoz Arrasate Telebistara eta azaldu zure kezka, ideia eta asmoak!

## SOLUZIOAK

**Jeroglifikoak:**

Lau tomate.  
SS. 19. Rn. 20. Ar.  
riko. 8. Riga. 13. Ezti. 16. Iok. 17.  
Ufaka. 4. Ne. 5. Arel. 6. BEZ. 7. Age.  
**Bertikalak:** 1. Iker. 2. Lasaitu. 3. Sudur.  
dura. 14. Iorram. 15. Iie. 16. Ar. 17.  
razi. 10. Ura. 11. Amag. 12. Sina.  
**Horizontalak:** 1. Asetasun. 9. Gale-

## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

*Es Lu*  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**Etxebizitzak**

- **70 m<sup>2</sup>ko lonja alokatzen da.** Ura eta argia ditu. 40.000 pta. Tfnoa: 79 76 95.
- **Uztailean apartamendu berria alokatzen dut** Cambrills-en. 2 gela, pizina, terraza, telebista... Tfnoa: 46 05 42.
- **Apartamendua saldu** edo alokatu egingo nuke Torrevejan. Hondartza ondoan. Tfnoa: 71 63 19.
- **Etxebizitza alokatzen da** Playa de San Juanen uztaileko lehen hamabostaldian. Informazio gehiago: 79 49 98 tfnoan.
- **Musakola aldean garajea** alokatzen da. Tfnoa: 79 37 68.
- **Eskoriatza erdi erdian 97m<sup>2</sup>ko** etxea alokatzen da. Sukaldea jantzita, 3 logela, terraza, garaiea... Tfnoa: 71 43 51.
- **Pisua osatzeko bi pertsona behar dira** Donostian Amara auzoan. Dei egin 47 02 82 tfnoara gauz. Miren.

**Lana**

- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Neska prest uztaileko arratsaldetan** taberna batean lan egiteko. Tfnoa: 78 16 88. Izaskun.
- **Umeak zaintzeko**, etxeko lanak egin edo dena batean lan egiteko prest. Tfnoa: 79 93 17.
- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 79 15 62.
- **Bi neska uztailean** EGBko klaseak emateko prest. Tfnoa: 79 13 67.
- **OHO, REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 21 09. Itziar.

- **Uztailean OHOk** klase partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira, tituloduna eta akademiako esperientziarekin. Tfnoa: 79 28 98.
- **Uztailean esperientziadun neskek**, OHOk klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Bost-sei neskek kitarra** klaseak hartuko genituzke. Irakasle jator bat behar dugu. Tfnoa: 79 58 99.
- **Magisteritza daukan** neska batek OHOk klase partikularrak ematen ditu uztailean zehar. Tfnoa: 77 10 21.
- **Uztailean klase partikularrak;** Ingelesa, euskara, EGB. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.
- **Bizikleta mekanikari kanadiarra**, bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 53 40.
- **Klase partikularrak ematen dira** uztailean, euskaraz nahiz erdaraz. UBI mailara arte edozein arlo. Tfnoa: 79 4675 / 79 23 36. Amaia.
- **Uztailean ingelesezko klase** partikularrak ematen dira. Tfnoa: 76 07 87. Arantza.
- **Neska prest garbiketakegiteko.** Tfnoa: 79 37 68.
- **2. REMeko klase partikularrak nahi ditut** uztaileta eta abuztuan. Interesatuok dein egin 79 71 33.
- **Informatikako ikasleak udan** OHOk klaseak emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.
- **Frantseseko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 27 06
- **Kanping-eko karro-denda salgai.** Sei lagunendako, bere hozkailu eta guzti. Egoera onean. Dei egin eguerdian edo gauean 79 99 53 tfnora.

**Salerosketak**

- **Trialerako Montesa Cota 311** motorra ekipo eta guzti saltzen da (berria, urte térdi dauka). Prezio onean. Tfnoa: 79 30 67. Igor.
- **Diapositibak proiektatzeko** bideoa eta oso egoera onean dagoen sofa salgai. Tfnoa: 76 07 87.
- **Bi pare eski eta bi pare bota salgai.** Esakiak: Dynastar-Tyrolija 420. Rossignol-Salomon 347. Botok: Nordica eta Tecnica. Guzti hau 33.000 ptatik eraman dezakezu. Dei egin gauz 79 25 31 tfnora.
- **46 pulgadako telebista pantaila salgai.** Tabernatarako egokia. Tfnoa: 79 24 59.

**Denetarik**

- **1995-96 ikasturtean** egunero autoz Andoain edo Donostiara joan behar baduzu dei egin 79 39 69 tfnora. Aner.
- **Ume pultsera bat galdu zaigu** ekainaren 10eko asteburuan. Aurkitu baduzu dei egin 79 70 87 tfnora.
- **Pultsera bat galdu zait**, Junkal izena darama. Aurkitzen baduzu dei egin 79 95 23 tfnora.
- **Orain 35 urteko data** eta inisialak dituen alianza aurkitu du. Tfnoa: 79 46 13. Gaueko 8etatik aurrera.
- **Gazte kanadiar batekin ingelesa praktikatu** nahi baduzu dei egin 79 53 40 tfnora.
- **Betaurreko urdinak galdu zaizkit** Zigarrolatik kalerako bidean, larruzko funda batean. Tfnoa: 77 10 92
- **Graduatutako betaurreko metalikoak galdu zaizkit** funda beltz batekin autobus geltokian edo inguruan. Tfnoa: 79 99 03.
- **Zilarrezko pultsera harri berdeekin galdu** nuen San Juanetan. Aurkitu baduzu dei egin 76 29 96 edo 76 19 65 tfnora.

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Santamaina auzoko liburategian aritzeko beka. Baldintzak: Unibertsitate diploma eta EGA titulua. Dirulaguntza: hileko 60.000 pta. Dediakazioa: astean 20 ordu. Epea: uztailek 14.
- Atzerri merkataritzan prestatzeko beka. 30 urtetik behera duten goi mailako titulodunei zuzenduta. Epea: uztailek 26.

**Txartelak**

- "Naziorteko Ikasle Txartela". Atzerrira zoazten ikasleoi txartel hau eskuratzea komeni zaie

zue, ikuskizun, museo, garraio eta abarretan beharpenak izateko. Donostian, Gasteizen nahiz Bilbon lor dezakezue.

- "Gazte Txartela". Gazte-Txartelaren VI. kanpainari ekin zaio. Bi berrikuntza dakar: A) Kutxako bulegoetan egin eta banatuko dira, 500 ptaren truke (ez da argazkirik behar). B) Txartela bera erabiliz ordaindu ahal izango dira erosketak, beste kreditu-txartel bat bilakaturik.

**Lehiaketak**

- Eusko Jaurlaritzako Kultura

Sailak "Enpresa eratzeako gazteentzako X. ideia-lehiaketa" plazaratu du. 18-30 urte bitarteko-ek zuzenduta. Ideiaren bat baduzu eta nola garatu ez badakizu edo proiektua burutzeko laguntza behar baduzu, aholkularitza dohainik eskeiniko dizute. Epea: uztailek 21.

- "Gazteok bizikletan" VI. Argazki Lehiaketa. Bi kategoria: A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak. B) 19-35 urte bitarteko edozein. Zuribeltz zein koloretan, gehienez, 3 argazki. Epea: urriak 11.

**"Bada Alzheimer mota bat jendeak gurata harrapatzen duena, hainbeste zezenketa, futbola eta lehiaketa ikusi eta gero. Pertsona lelotu egiten da sofan jarrita"**

**DEF CON DOS**



**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# Uztaileko Kultur Ekintzak

Ekintza guztiak  
**MONTEIRON PARKEAN**  
(Eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian)

## DANTZA



**UZTAILAK 7, OSTIRALA**  
Gaueko 10.30 etan

**UKRANIAKO "KALYNA"**  
Dantza taldea

## ANTZERKIA



**UZTAILAK 14, OSTIRALA** Gaueko 10.30 etan  
"Sobradun" Gasteizko antzerki taldearen

## "HERMINIO Y MIGUELITO"

(TMEO komikiaren Herminio Bolaextraren abenturak)

## ZINEA

**OSTEGUNETAN**  
Gaueko 10.30 etan

- Uztailak, **6**  
**Las aventuras de Priscilla, Reina del Desierto**
- Uztailak, **13**  
**Cuatro bodas y un funeral**
- Uztailak, **20**  
**Matinée**
- Uztailak, **27**  
**Amor a quemarropa**



Arrasateko Udala  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**BEHERAPENAK!**

**UNITED COLORS  
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATI